

Xagun Artea

2011ko apirilaren 18a

Xagun aldizkaria

64. alea

Tipi-tapa, tipi-tapa Korrika!



Apirilaren 13an AEKK antolatuta Korrika herritik pasa zen giro bikainarekin. Aurtengo Korrikak Euskaltzaindia omen-
du duenez, Zerainen ere gogoan izan zen euskal akademia Mikel Zalbide euskaltzainaren bitartez. Testigua eramateaz
gain, aurreko ostiralean (apirilak 8) sozidadean Korrikaren alde egin zen afarian omenaldi txiki bat egin zitzaion eus-
kaltzainari. Mikelez gain, honako beste herritarrek eraman zuten testigua Zeraingo ibilbidean barna: Mikel Iturrioz,
Xabier Lazkanoiturburu, Haritz Iztueta, Aizpea Elorza, Eki Iturrioz, Aitziber Makazaga eta Unai Fernandezek. Giro ezin
hobean, euskararen aldeko aldarrikapenean Zerainek beste behin ere bat egin zuten Korrikarekin.



Aizpea eta Eki eskolako testiguarekin. Argazkia: HITZA



Aitziber Makazaga Udalaren kilometroan. Argazkia: HITZA

Madrilgo Sustapen Ministerioaren diru-laguntza

Espainiako Gobernuaren Sustapen Ministerioak 459.800 euroko diru-laguntza eman dio Zeraingo Udalarai Aizpeako burdinaren mendiko proiektuan aurrera jarraitzeko.

Ministerioaren 1% Cultural izeneko programaren barruan, Udalak diru-laguntza eskatu zuen meategiko transformazio-tailerra (labeak eta ingurunea) berreskuratzeko. Martxoaren 22an Ministro-Kontseiluan onartutako laguntzarekin, labeen berreskuratze-lanak aurten hasiko dira. Aizpeako proiektua badoa aurrera!



Bertan saria eman diote Aldabe kooperatibari



Turismo arloko *Bertan* saria eman diote Aldabe kooperatibari. Beasaingo Igartzta jauregian martxoaren 24an egin zen ekitaldian jaso zuten Aldabeko kideek Noticias taldeak emandako saria. Zorionak denoi!

Euskal Herriko itzulia pasa da herritik

Apirilaren 4an Euskal Herriko Txirrindulari Itzulia bi aldiz pasa zen Zeraindik.



Antonio Alustiza Lehendakari



Untsulategiko Antoniok 2. urtez jarraian, 5 tiralditara jokaturako *Lehendakari* bola txapelketa irabazi du. Euskadiko txapelketarako txartela lortu du gainera.

Ostatuko mus txapelketa



Martxoaren 26an Ostatuko mus txapelketa jokatu zen. Finalean Luis eta Toño gailendu ziren, Ormaiztegioko Txantxi eta Gorriren kontra.

Angarillak, angarilletan

Era askotara esan izan da hitz hau. OEH hiztegiak zortzi forma hauek ematen ditu: *angarilla*, *angaraila*, *angaila*, *angarala*, *angailu*, *angerela*, *angelera* eta *angeela*. Euskal herriko paraje askotxotan erabili izan da: bai hemen hegoan, Gipuzkoan bereziki, eta bai iparraldean. Kasu askotan pluralean erabiltzen da hitza (*angarillak*), inesiboan batez ere (*angarilletan*). Honela dio hiztegiak: "parece que esta palabra ha sido usada tanto en singular como en plural". Arrazoi du. Singularreko kasuak dira hegoaldeko adibide hauek: "morroiak egur batzuekin *angarilla* sendo bat egin zuten. Kondeak bere alfonbrak *angarillaren* gañean zabaldu [...]". Gizon aiek egin zuten angalla bat, etzan ninduen bertan, eta basorik baso eldu giñan erri txiki batera". Baita iparraldeko hau ere: "saldu behar izatu da astoa eta haren orde angarail edo bezalakoan Jaun aphezpikuaer eman zuten garraiariek. Aitzin-aitzina zaramazkatelarik irabazi zituzten sariak, ederki aphainduak ziren *angaila* batzutan". Pluralean datoz, aldiz, iparraldeko adibideok: "odoletan geldituak ginen gu ere, eta brancardier gaizok bazuten non zeregin! Beren *angeelak* bizkarrean, ixil ixila heldu ziren. Beranxko ethorri ziren lau gizon, paralesiatu bat *angailetan*. Heldu dira athe aitzinerat eta lauak hantxe daude harrituak, urdea bere portadera edo *angailuekin* airatua!". Pluralean dator, azkenik, Piriniotan baso-mutil ibilitako gipuzkoar honen adibidea: "txabola-atarian egin genduan *angaila*: bi pago-landara moztu ta bi zaku bi eskiñetan zulatu; ta an sartu bi egur aiek, bi muturretan bi trabesaño josita. Antxe erdian ipiñi genduan ildakoa".

Nondik dator hitza? Erdararik: gaztelaniaz *angarilla(s)*. Frantsesez, aldiz, beste erabatera esaten zaio: "civière à bras, sorte de civière qui sert à porter, à deux". Beste hitzik ere bada gaztelaniaz, hori esateko: "parihuela".

Honela definitu du Elenak *angari-*

lla hitza, zeraindarrei galdetu ondoran: "lau helduleku dituen egurrezko ohatila moduko bat. Bi eratakoak izaten ziren garai batean. Batetik, hildakoak bere kutxan etxetik elizara eramatekoak: egurrezko ohol liso bat ziren hauek, hilkutzak bertan lotu eta erosoago garraiatzeko. Bestetik, gaitxoak edo gorputzak eramateko: eskaileren antzekoak ziren hauek, ohol lisoa izan beharrean zeharka, mailaka bezala, ohol txikiak edo trabesekin egindakoak; alboetatik altuxeago ziren, eta burualdean ere bai. "Angarilletan eraman" garbi dago zer den. Elenari kontatu diotenez, kasu batzuetan eskailerak ere erabili izan dira *angarilla* moduan, hildakoren bat ekartzeko. Baita ostatuan behar baino gehiago edandakoren bat etxera *angarilletan* eramateko ere.

Angarillak non izaten ziren? Batetik, etxeetan. Xanti Muñoak dioenez, Larraondon bazen bat, beraiek egina. Aspaldi erretiratu zuten hura. Arrastorik ere ez du, orain beste etxeren batean halakorik gelditzen ote den. Erietxeetan ere izaten ziren halakoak. *Angarillak* baino gurpildun kamillak maizago ikusten dira ordea, orain. Arrisku-lekuetan ere badirudi eskueran izaten zirela *angarillak*. Meatzeetan, esate baterako. Hala esan digu Antonio Untsaltegikok "minatan izango zan *angarillarik*, baina seguru ez dakit". Jose Mari Etxaluzek, aldiz, gogoan du kontua: "kaolin-minetan baziran *angarillak*". Herri-kaskoan ere izango ziren agian. Galdezka ibili da Elena, hil-kutzak eramatekoa non egoten zen (elizan, bikarioetxen,...). Peskiza horretatik ez du ordea garbitasun handirik atera ahal izan.

Galtzen ari da hitza, Zerainen eta nonahi. Berrogeita hamar urtetik gorako zeraindarrek badakite *angarilla* zer den; hortik beherakoek apenas. Hitzak zer esan nahi duen gogoan duten batzuek honela esan diote Elenari, lehen-lehenik: "Hildakoak etxetik elizara eramateko erabiltzen zen". Hitzaren berri duten guztiek ez dute, ordea, *angarillarik* ikusi. Elenak


 Mendian inprobi-satutako *angarilla*

berak hitza entzun izan du etxean, baina *angarillarik* inoiz ikusi gabea da. *Angarillak* zer ziren kontatu egin diote, baina ikusi ez ditu inoiz egin.

Zergatik galdu da hitz hori? Garraio-kontuan gure gizarteak azken mende-erdian izan duen aldaketa teknologiko bizkorragatik. Gaixoak erietxera eramateko, edota hildakoak elizara, tanatoriora edo hilerrira garraiatzeko, autoak eta anbulantziak daude orain ugari. Eriak eta hildakoak ezd ago, lehen bezala, leku batetik bestera eskuz eraman beharrik. Azken berrogeita hamar urteko aldaketa teknologiko bizkor horrek alde batera utzi ditu *angarillak*. Lehenik kalean desagertu dira eta gero, baserrietara bideak zabaltzearekin batera, nonahi. Orain ere izaten dira *angarillak*, baina pertsonal espezializatuak bakarrik erabiltzen ditu: Gurutze Gorriak, DYAK, hildakoen garraio-etxeetakoak eta abar. Gero eta zailagoa da, horregatik, *angarilla* bati orain argazkirik ateratzea. Erabat ez dira desagertu, halere. Norbaitek mendi-mendian istripu larria duenean, eta helikopteroaren edo mendi-autoaren zain egoterik ez dagoenean, egiten dira orain ere nolabaiteko *angarillak*, zuhaitz-adarrez edo ahal den moduan. Oso gutxitan gertatzen da, ordea, halakorik egin behar izatea. Horregatik, esan bezala, desagertu egin dira gehienon begien bistatik. Eta jakina: inon ikusten ez dugun tresna zertarako hasiko gara izendatzen? Galdutako tresnak ez du izenik behar. Asfaltoa eta autoa zabaltzearekin batera joan dira *angarillak* galtzen, izatez eta izenez.

Mikel Zalbide eta Elena Mendizabal



Xagu-txoko



Babesetik

MARTXOA	al	ar	az	og	or	lr	ig
		1	2	3	4	5	6
Euria (l/m)		9	6,5	7	0	0	0
C° altuena		10	7	7	10	17	20
C° baxuena		2	3	1	0	0	-1
	7	8	9	10	11	12	13
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	0
C° altuena	21	18	20	21	21	16	19
C° baxuena	0	8	7	3	6	9	6
	14	15	16	17	18	19	20
Euria (l/m)	0	14	39	10	0	0	0
C° altuena	15	17	10	10	20	15	16
C° baxuena	5	10	9	10	6	6	7
	21	22	23	24	25	26	27
Euria (l/m)	0	0	0	0	0	0	13
C° altuena	19	17	19	19	20	21	19
C° baxuena	3	5	4	8	10	9	8
	28	29	30	31			
Euria (l/m)	4	6	12,5	0	GUZTIRA: 121 l.		
C° altuena	18	20	16	26	ALTUENA: 26°		
C° baxuena	6	8	5	10	BAXUENA: -1°		

Martxo epelean kukua ere etorri da

Udaberriko giro epela izan dugu martxoan. Euririk gabeko egun asko izan dira eta termometroa zeropetik egun bakarrean izan dugu (-1 C° hilaren 6an). Nahiko otsail leunaren ostean, udaberri giroa izan da nagusi joan den hilean, beraz artzain eta baserritarrentzat oso egokia. Hostoa ere mugitu da eguraldiak lagunduta eta Andramari martxokorako (25a) kukua kantari entzun dugu herrian.



Txikori-belarra loretan

Zikoinak bisitan



Apirilaren hasieran oso bisitari bereziak izan ditugu herrian. Hainbat zikoina ibili dira eta ezohiko argazkiak utzi dizkigute. Jauregiko teilatuan, nahiz kanpandorrean ikusi ditugu.

San Isidro ospakizuna

Aurten ere San Isidro eguna (maiatzak 15) herrian ospatzeko asmoa badago. Oraindik ez da zehaztu baserritarren omenezko festatxoa noiz eta nola egin. Baina datozen egunetan esango zaio jendeari.

Herri-mugen bilera

Herri-mugei buruz liburu batean azterketa eta informazio-biltze lanak jaso nahi dira. Herrian talde bat horretan lanean hasi da eta bigarren bilera irekia, apirilaren 27an, asteazkena, egingo da iluntzeko 7etan.

Uharka abesbatzaren kontzertuak

Zeraingo Uharka abesbatzak bi emanaldi izango ditu maiatzean. Ezkion abestuko dute maiatzaren 8an, meza ondoren. Handik astebetara, berriz, hilaren 15ean, Zerainen izango dute kantaldia meza ondoren. Bi saioetan Ezkioko korua ere arituko da.

Legazpiko karrera

Legazpiko Santikutz txirrindulari klasika maiatzaren 1ean, igandea, bi aldiz pasako da herritik. Lehenengo aldiz goizeko 11:30ak aldera eta bigarrenean 12:10 aldera etorriko dira txirrindulariak Aztiri aldetik. Ondorioz, mozketak izango dira trafikoan.

Aste Santuko elizkizunak

Aste Santuko kristau ospakizunak ordu hauetan izango dira Zerainen: Ostegun Santuan arratsaldeko 5etan, Ostiral Santuan arratsaldeko 4etan eta Pazko igandean 11etan.